

Enpresa Mugikortasun Plana
Aholkuak eta praktika onak

MUGIKORTASUN PLANA



Enpresa pribatuak
Lan eremuak
Kolektibitateak

Parte har dezagun!



Aurkibidea

- > Zer da Mugikortasun Plan bat ? 3.or
- > Abantailak enpresa eta haien langileentzat 4.or
- > Mugikortasun Plana 4 urratsetan 5.or

Gidaliburu honetako datu eta informazio batzuk, www.reseauactionclimat.org webguneko gure argitalpenak sailan aurki daitekeen «Mugikortasun Plan bat nire enpresan» dokumentuan eskura daiteke.



Zer da Mugikortasun Plan bat?

Mugikortasun Plan bat zer da?

Auto indibiduala gutiago hartzera lagunduko duten garraiobideak gehiago erabiliz, enpresa baten (edo enpresa talde baten) aktibitateari lotuak zaizkion joan-etorriak optimizatzea xede duten neurri multzo bat da **Enpresa Mugikortasun Plana (EMP)**.

2018ko urtarrilaren 1etik goiti, Hiriko joan-etorri plan (HJP)* baten eremu barnean kokatu eta, gune berean 100 langile baino gehiago biltzen dituen enpresa orok plantan ezarri behar du.

2015eko agorrilaren 17an bozkatu garapen Berdearen aldeko Trantsizio Energetikoaren ondorioz dator betebeharrak hau. Honen arabera, Frantziak berotegi efektuko gasen isurketa %40ez apalarazi behar du 2030ean, 1990etik abiatuz, nahasmendu klimatikoaren aurka borrokatzeko gisan.


* Joan-etorrien politikaren planifikatze dokumentua da Hiriko Joan-etorrien Plana (HJP). Honela, datozen 10 urteetarako antolaketa eta zerbitzu orientazioak finkatzen ditu Euskal Hirigune Elkargoan eta Tarnos hiriko eremuan.

Plan berdina enpresa bat baino gehiagori zuzendua

Enpresa bakoitza erreferente batez ordezkaturik da. Bilkurretan parte hartzen du, informazioak helarazten ditu eta ekintzak egituraren baitan nola plantan ezarriak diren jarrizten du. Moldeak, baliabideak eta indarrak bateratuz, berek bakarrik plantan

ezartzeko ahalik ez duten enpresa ttipi batzuei mugikortasun zerbitzuak baliatzeko parada eskaintzen die **Enpresa Arteko Mugikortasun Planak (EAMP)**.

Enpresa Arteko Mugikortasun Plan bati esker, mugikortasuna neurri egokian jar daiteke, jarduera gune batena adibidez, diagnostiko partekatutako burutzeko, arazoak aztertzeko eta lurralde berdin batean kokatuak diren enpresa desberdinetako soldatadunei, bezeroei, kolaboratzaileei aterabide orokorrak ekartzeko (gune anitzeko plan batek bil ditzake talde berdinekoak edo sail berdinekoak diren enpresak, gune ezberdinetan kokatuak badira ere).



Abantailak enpresa eta haien langileentzat

Ekonomikoak / sozialak / ingurumen arlokoak

- 1 Erosteko ahalmenaren emendatzea etxea-lantokia joan etorrien gastuen apaltzearen bitartez.
- 2 Auto ilaretan eta aparkatzeko leku bat atzemateko denbora gutiago iragan.
- 3 Akidura, estresa, istripuen apaltzea bizi kalitatea hobetzeko lanean.
- 4 Gunearen helgarritasuna errazten duen aparkalekuen optimizatzea langileentzat, bezero, bisitari eta hornitzaileentzat bezain bat.
- 5 Laneko joan-etorriak eta zerbitzuko autoak ez erabiliz sortzen diren ekonomiak.
- 6 Elkarriketa sozialaren sendotzea, zuzendaritza, kolaboratzaile eta sindikatuen artean.
- 7 Arrabotsa, errepideko trafikoa, kutsadura atmosferikoa apaldu izan ondoren, lurraldea hobeki zaindua da.
- 8 Enpresaren irudia balioan emana da, engaiamendu bateratu bat garatzearekin batera.
- 9 Parte hartze indibidualak herritar desmartxa batean sarrarazten du.

Plantan ezarriak izan diren ekintza batzuk

- Autopartekatzerako atxikiak diren aparkaleku lehenetsien identifikazioa.
- Geldileku bat antolatzea garraio publiko sareko linea batean edo zirkuituen ordutegia enpresaren ordutegiarekin egokitzea.
- Bizikleta garaje segurtatuak sortzea.
- Mugikortasun enpresa foroak, bakoitzari egokiak zaizkion molde desberdinak aurkezteko.

Inkesta, diagnostikoa eta kontzertazio atelerien ondotik, « Mugikortasun Plana » egitasmoaren taldeak ekintza plan bat landu du, jendarte erronkak errespetatuz eta gure enpresaren berezitasunak kontutan hartuz. Heldu diren 3 urteetan plantan ezarri beharreko 21 ekintza abiatu ditugu, besteak beste: oinezkoen zirkulazioa hobetzea, autopartekatzea eta garraio publikoen erabilpena lehenesten dituen lan antolaketa.

Laurent Davin,
Boncolac enpresako Zuzendaria



Mugikortasun Plana 4 urratsetan



1. urratsa

Egitasmoa prestatu eta gidatu

- Gidaritza batzorde bat izendatu
- Begiztatu helburuak eta publikoak finkatu
- Desmartxaren garapena antolatu, diru baliabideak identifikatu



Maila honetan:

Mugikortasun Aholkularitza zerbitzuak segida bat eskaintzen dizu egitasmo honetan sarrarazi behar diren pertsonak identifikatzeko, plangintza bat plantan ezartzeko laguntza ekarriz eta aurkezpen dokumentuak zure esku utziz.

Gaitasun tekniko desberdinak (GB, zuzenbidea, informatika eta komunikazioa) eta langileen ordezkaritza bat sarrarazi nahi izan ditugu gure gidaritza batzordearen baitan. Gure kideak, 3 guneen estutuen aniztasunaz eta mugikortasunari dagokion hurbilpenari ordezkaritza dira. Hastapenetik, Ipar Euskal Herri - Aturri Mugikortasunen Sindikatua eta Baionako Herriko Etxea sarrarazi ditugu, gure erakundeko zuzendaritza nagusiak izendatu zuen proiektuburuaren zuzendaritzapean.

Laurence Dartiguelongue,
Habitat Sud Atlantic-eko Zuzendaria

2. urratsa

Enpresaren joan-etorrien diagnostikoa burutu

- Informazioak bildu, mugikortasun inkesta bat eginez
- Mugikortasun usaia aztertu eta ondorioztatu



Gure mugikortasun plana apailatzean, estimatu dugu etxea - lana arteko joan-etorriek urtean 500 T CO2 eragiten dituztela, erran nahi baita gure isurketa orokorren %25a. Gure enpresa, Iso 14001 eta Iso 50001 ziurtatua da, hots, Erabilpen Energetiko Esanguratsua da. Eragin horren murrizteko ekintza batzuk indarrean ezarri ditugu, besteak beste telelanetik, auto partekatzetik edota ere garraio berdeetatik abiatuz.

Jean-Marc Abbadie,
Epta France gizabaliabideetako zuzendaria



Maila honetan, Enpresa Mugikortasun Planaren dokumentu zorroa:

informazio gutun modelo bat, zure enpresari egokia zaion inkestaren bertsio bat paperean eta numerikoan, diagnostiko fitxa, datu grafikoak.

3. urratsa

Ekintza plana apailatu



- Helburuak finkatu, epe motzeko eta ertaineko joan-etorrien optimizatzeko
- Ekintza katalogo bat finkatu
- Lehentasunezko ekintzak erabaki (kontzertazioa)
- Buxetaren apailatzea

Marracq Mugikortasun Planaren ateleria zabalduaren kari bildu dira enpresa gidarietako ordezkaritza batzuk, Hirigintza agentzia (AUDAP), arkitektura aholkularitza (CAUE), auzotegiko biztanle batzuk, elkarte batzuk bai eta herriko etxeko, Euskal Elkargoko eta departamenduko teknikari batzuk. Behakoak gurutzatu eta ekintza plan errealista, egingarria eta koherente bat apailatzeko gisan.



Maila honetan, Enpresa Mugikortasun Planaren dokumentu zorroa:

Elkar aditze tailerrak animatzeko diren fitxa baliagarriak eta «ekintza pistak» fitxak.



4. urratsa

Mugikortasun Plana obratu eta jarraitu

- Neurrien obratzea antolatu
- Komunikatu eta sentiberatu
- Ekintzak ebaluatu
- Desmartxa egonkorarazi

EIOZ-ko Mugikortasun Planaren karietara, 2018az geroztik burutu ekintza desberdinen ondorioz, ohartu gara (2019ko martxoko ebaluaketa inkesta) autobakarlarien modu-zatia %10-ez apaldu dela, emaitza motibagarria zinez, gure ekintzak jarraitzen bultzatzen gaituena.

Françoise Perez,
Euskal kostaldeko Ospitaleko zuzendariordea



Maila honetan, Enpresa Mugikortasun Planaren dokumentu zorroa:

ebaluaketa eta jarraipen taula, ibilbide erdiko inkesta, trukatzeko erregularrak egitasmo buruarekin.

Ba al zenekien?

Zure enpresaren mugikortasun aurrekontuak ondoko hauek kontutan hartu behar ditu:

- aparkagunea mantentzeko kostua urtean,
- Zerbitzu ibilgailuen kostua ibilgailuen kostua (asurantza, mantenua, erregaia, etab.),
- laneko joan-etorrien kostua (erregaia, autobideetako ordainlekuak eta aparkatzeak),
- Ibilbide istripuen kostua (prezio finkoaren emendatzea, lan geldialdia).

Fresa guziak barne, autoak 0,30€-ko kostua du km-ka. Egizu kontu!

Enplegatzaileak beregain hartzen du, garraio publikoa erabili nahi duten langile orenen abonamendu kostuaren %50a.

Euskal Elkargoak eta Ipar Euskal Herri-Aturri Mugikortasunen sindikatuak dirulaguntza bat eskaintzen dute bizikleta elektriko baten erosteko. Ipar Euskal Herriko eta Tarnoseko biztaleek dirulaguntza hau eska dezakete.



Ipar Euskal Herri - Aturri Mugikortasunen Sindikatua
Mugikortasun Aholkularitza Zerbitzua & Mugikortasun Berriak
Tel. 05 59 44 77 61
txiktxak@communaute-paysbasque.fr



Tous frais confondus la voiture coûte 0,30€ par km. Faites vos comptes !

- le coût annuel de l'entretien du stationnement,
- le coût des véhicules de service (assurance, entretien, carburant, etc.),
- le coût des déplacements professionnels (carburant, péage des autoroutes et stationnement),
- le coût des accidents de trajet (majoration forfaitaire, arrêt de travail).

Le budget de votre entreprise doit prendre en compte :

Le savez-vous ?

Tout salarié qui souhaite emprunter les transports en commun bénéficie d'une prise en charge de son abonnement par son employeur à hauteur de 50 %.

La Communauté des Pays Basque-Adour et son Syndicat des Mobilités Pays Basque-Adour proposent une aide financière pour l'acquisition d'un vélo à assistance électrique. Sont éligibles à cette subvention les habitants du Pays Basque et de la Ville de Tarnos.



Syndicat des Mobilités Pays Basque - Adour
Service Conseil en Mobilités & Nouvelles Mobilités
Tel. 05 59 44 77 61
txiktxak@communaute-paysbasque.fr

